

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Zaldibiako Udala

Ayuntamiento de Zaldibia

2019





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko iritzia	8
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Aurrekontua, kontabilitatea eta diru-sarrerak.....	10
III.2 Langileria.....	11
III.3 Kontratazioa.....	11
III.4 Transferentziak eta dirulaguntzak	12
III.5 Beste alderdi batzuk	12
IV.FINANTZAREN ANALISIA	13
V. URTEKO KONTUAK	16
ERANSKINAK	19
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zaion legeria	19
A.2 Aurrekontua eta aldaketak	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	20
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	21
A.5 Langileen gastuak.....	21
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzu eta inbertsioen kontratazioa	23
A.7 Emandako transferentzia eta dirulaguntza arruntak	24
A.8 Aurrekontuko zordunak.....	26
ALEGAZIOAK	27



ABREVIATURAS	29
I. INTRODUCCIÓN	31
II. OPINIÓN	32
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	32
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	32
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	34
III.1 Presupuesto, contabilidad e ingresos	34
III.2 Personal.....	35
III.3 Contratación	35
III.4 Transferencias y subvenciones.....	36
III.5 Otros aspectos.....	36
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	37
IV. CUENTAS ANUALES	40
ANEXOS	43
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	43
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	43
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	44
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	45
A.5 Gastos de personal	45
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios e inversiones	47
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	48
A.8 Deudores presupuestarios.....	50
ALEGACIONES	51



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

24/2018 LED	Sektore publikoko ordainsarien arloko premiazko neurriak.
AASS	Arau Subsidiarioak.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
HILBIZ	Hiri izaerako lursailen balio igoyeraren gaineko zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak agindutakoari eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Zaldibiako Udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako Zaldibiako Udalaren Kontu Orokorren aurreko fiskalizazio lana 2006ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak Udalaren aurrekontuko balantzeak, ekonomia eta ondarearen emaitzen kontuak, oroitidazkiak eta likidazioak besarkatzen ditu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Zaldibiako udalerriak 1.613 biztanle zituen 2019ko urtarrilaren 1ean. Udala Sasieta Mankomunitateko eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioko partaide da; Sasieta hondakinen bilketa kudeatzen du 23 udalerritan eta Ur Kontsortzioak bideraketa sareko zerbitzua ematen du. Berebat, Goierriko Ekimena SA sozietatean ere parte hartzen du (% 4), zeinak Goierri eskualdeko 18 udalen sustapen ekonomikoko eskumenak kudeatzen baititu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak 2019an % 2,33ko ordainsari igoera onartu zuen eta lanpostu guztien balorazioa egin zuen; horrek % 6,9ko ordainsari igoera osagarria eragin zuen. Aurrekontuko araudiak ordainsari igoeraren mugak gainditzeko bide ematen du ordainsari-egokitzapen berezi eta apartekoetarako (24/2018 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.7 artikulua). Ezaugarri hori ez da betetzen, balorazioak lanpostu publiko guztiei eragiten baitie.

Epaitegi honen ustetan, Zaldibiako Udalak, aurreko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2019ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Zaldibiako Udalaren 2019ko abenduaren 31ko Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONTUKOA	ONDAREKOA		
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIB.	ONDARE GARBIA
A.3 2019ko 4. hiruhil. ur, zabor eta estolderia tasak 2020an kitatu eta onart.	(41)	-	-	-
A.4 Zaharrentzat lokal berrirako dirulag. finantzaketaren desbideratzea.....	(60)	(60)	-	(60)
A.6 2019ko gastuak, urte horretan aitortu gabeak	(52)	-	52	(52)
A.8 Aurrekontuko zordunak: hornidura-akatsa eta desberdintasunak xehakap. ...	(99)	(99)	-	(99)
A.8 Kontraturiko mailegua, 2019ko abenduaren 31n erabili gabea.....	(1.000)	(1.000)	(1.000)	-
GUZTIRA	(1.252)	(1.159)	(948)	(211)

2. Udalak ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehakapenik, ez amortizaziorako zuzkidurarik egiten. Horregatik guztiagatik, ezin esan daiteke Udalaren Balantzeko aktibo ez arruntaren saldoek, guztira 12,8 milioi euro, islatzen duten Udalaren ondasun eta eskubideen egiazko egoera 2019ko abenduaren 31n.
3. 2011n, arau subsidiarioetara ez egokitzeagatik xehetasun-azterlan bat onartzen zuen akordioa baliogabetzat jo zen. Epaia betearazteko prozesuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak kalte-ordaina emateko prozedura abiaraztea erabaki zuen 2019ko azaroan, eta Udalari 303.013 euro eskatu zizkion. Udalak zenbateko hori aurkaratu du, baina EAEANk ez du ebazpenik eman txosten hau idatzi dugun datan. Erantsitako Kontuek ez dute kalte-ordaina etorkizunean ordaintzeko zuzkidurarik jaso eta horri buruzko informaziorik ere ez da barne hartu Oroitidazkian.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Epaitegi honen iritzira, aurreko salbuespenak alde batera, Zaldibiako Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2019ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2019ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arauan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira ekonomia eta finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak ez ezik, baita kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere.

III.1 AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK

- Onartutako aurrekontuan ez zegoen idazkari-kontuhartzailearen nahitaezko txostenik, eta langileen eta dirulaguntzen eranskinak ez zetozen bat gastu-kapitulu horietako diru-izendapenekin.
- 2019ko aurrekontuari 2017ko kredituak txertatu zaizkio, 48.057 euro; ordea, horiek ezin ziren hor jaso araudiak mugatu egiten dituelako txertaketa jarraituak. Gainera, 8.111 euroren transferentzia batek % 25 baino gehiago murriztu zuen gastu-programa bat, eta halakoetan nahitaez onartu behar du Udalbatzak.
- 2. kapituluaren aurrekontuko egiturak ez du araudiak finkatutakoa betetzen eta kapitulu horretako gastuen % 75 araudiaren arabera bulego-materialaren erosketei esleitzen dien gastu-kontzeptuan sailkatzen du.
- Gastuaren esleipen fasea ez da kontularitzan erregistratzen eta ondorioz, Aurrekontuaren likidazio egoerak ez du kreditu konprometituen berri ematen, zeinak 2019ko abenduaren 31n 1,3 miloi euro ziren. Halaber, Oroitidazkian ez dira jasotzen data horretan konprometituak zeuden geldikinak (ikus A.6).
- Oroitidazkiak ez zuen 2020rako onartutako 66.646 euroren konpromiso-kredituaren egoeraren berri eman, 2019ko abenduaren 31n konprometitu gabe zegoena. Halaber, jakinarazi beharko litzateke kutxa-irizpidea aplikatu dela OHZ eta EJZren diru-sarreraren erregistroan. Geroko gertakarien atalean, jakinarazi behar zen 2020ko apirilean 200.000 euroren dirulaguntza eman zela eraikitzen ari zen eraikin berrirako.
- Udalaren zerga-zordun nagusia likidazio-prozesuan dagoen enpresa bat da, zeinaren instalazioak hirugarren batek erosi baitzituen 2018an. Instalazio horien OHZren likidazioak, 2016tik 2018ra bitartekoak, 122.400 eurorenak dira, eta eraikin horiei lotuta daude; beraz, jabe berriari eskatu behar zaizkio, zorrak bideratzeko dagokion prozedura gauzatu ondoren.
- Atzerapenak hauteman dira ordainagiriak eta likidazioak GFaren agentzia exekutibora bidaltzean: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergatik egiteke zeuden likidazioak, 2017tik 2020ra bitartekoak, 2020an bidali ziren.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2 LANGILERIA

- 2019ko ordainsarien igoera onartu zuen Udaltzaren erabakia argitara eman behar zatekeen GAOn.
- Udalak idazkari-kontuhartzaile lanpostua dedikazio osoko kalifikatu du, baina lanpostua partekatzeke beste toki-erakunde bateko partaidea da; % 90eko dedikazioa izatea aurreikusi da. Udalak aldaketa hori GFari eta taldeko beste udalari planteatu behar dio.
- 2019ko abenduaren 31n indarrean zeuden 1989 eta 2012 bitartean formalizatutako aldi baterako 5 kontratu. Kontratuen iraupenak erakusten du garatutako egitekoek iraunkortasun izaera dutela eta honenbestez, egoera hori zuzendu egin behar da.
- Udalak 2018an Giza Baliabideetako Plan Estrategiko bat onartu zuen, langileen erretiro aurreraturako pizgarrien ordainketa ezartzen zuena. Ez zen, baina, nahitaezko txostena egin hura eragin zuten arrazoi objektiboak, lortu beharreko helburua eta ondorio ekonomikoak zehaztuz.

III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai den urtean esleitutako kontratu nagusia berrikustean, udaletxe berriaren eraikuntza-lana, 2019ko ekainean 1,5 milioi euroan esleitutakoan, honako alderdi hauek azaleratu dira:

- Obraren aurrekontuak askotariko kapituluak barne hartu zituen (igogailua, klimatizazio-ekipoak...) eta xedea lotetan ez zatitzea erabaki zen; ordea, erabaki hori espedientean justifikatu behar zatekeen.
- Balorazio-irizpideei dagokienez, kontratua sinatu zenetik obra hilabeteko epean abiaraztea baloratu zen (% 2); epe hori, baina, araudiak eskatzen duen bera da. Gainera, enpresek euskararen erabilerari buruzko ziurtagiri jakin batzuk izatea (% 3) eska daiteke baldintza modura, baina ez balorazio-irizpide modura. Azkenik, langileek antzeko eraikin publikoen eraikuntzan zuten eskarmentua baloratu zen (% 15); irizpide hori, baina, ez zen justifikatu eta baztertzaila izan liteke.
- Kontratazio-mahaiari aholkularitza teknikoko zerbitzuak ematen dituen kanpoko aholkulari bat barne hartu zen; araudiak dio Udaleko langileek eta hautesleek osatuko dutela mahaiari. Gainera, 2 bokal izendatu ziren, baina arautegiak gutxienez 3 izan beharko dutela dio.
- Prezioa balioztatzeko baliatutako proportzionaltasun sinpleko formulak murriztu egin zuen faktore honen egiazko balioa, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanez.
- Lizitatzailerik ez-esleipendunari bidalitako jakinarazpenak egindako hautaketaren motibazioa zehaztu behar zukeen.
- Adjudikazioaren ebazpena eta gauzatutako kontratua kontratatzailearen profileen argitaratu behar ziratekeen.



Erosketa txikiak

- 2019an 140.594 euroren kostua izan zuten erosketak erosketa txiki modura esleitu zirela ikusi dugu, prozedura ireki bidez izapidetu beharrean. 80.000 eta 35.000 euro baino txikiagoko obra bat eta bi erosketa txiki, hurrenez hurren, prozedura ireki sinplifikatu laburtu bidez izapidetu zitezkeen. Kontratu txiki horietatik bitan esleipenak ez ziren transkribatu alkatearen Ebazpen-liburuan (ikus A.6).
- Kontratu txikiei dagokienez (40.000 euroren muga obretarako eta 15.000 euro zerbitzu eta horniduretarako), araudiak agintzen du kontratatzailearen profilean argitaratuko direla ekitaldian gauzatutakoak eta ez du halakorik egin Udalak. Kontratazioari buruzko Oroitidazkiaren atalean ere ez zen kontratu-jardueraren berri eman, 5 esleipen baino ez baitziren zehaztu.

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- 6.620 euroren dirulaguntza izendun bat aztertu ondoren ikusi dugu ez zela zegokion hitzarmen edo ebazpen xehakatuarekin arautu. Ordainagiri edo agiri baliokideak justifikatzeari dagokionez, dirulaguntzaren zenbatekoa gainditzen dute, baina ez zen sarrera eta gastuen nahitaezko zerrenda txertatu eta jaso izanaren agiriak barne hartu direla ikusi da.
- Udalak 16.985 euroren dirulaguntzak eman zizkien kultura eta kiroletako 10 kultura-erakunderi, webgunean argitaratutako oinarri-arau eta deialdiaren bitartez; ordea, Dirulaguntzen Datu-base Nazionala edo lurraldeko aldizkari ofiziala erabili behar zukeen. Udalak 400 eta 4.000 euro bitarteko laguntzak banatu zituen, dirulaguntzen oinarri-arauek banaketarako irizpideak zehaztu gabe.

III.5 BESTE ALDERDI BATZUK

- Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko araudiak informazio jakin bat udalaren webgunean argitaratzea eskatzen du. Informazio ekonomikoari dagokionez, ez dira Udalaren webgunean barne hartzen urteko kontuak eta ez da aurrekontuaren egonkortasun helburuak bete izanari buruzko informaziorik ematen. Berebat, emandako dirulaguntzen informazio xehakatu behar litzateke eta baliatutako kontratazio-moldeei buruzko estatistikak jaso. Azkenik, Udalbatzaren erabakiak eta udalkideen ordainsariak eta aitorpenak xehakatu behar lirateke.
- Ordainketa epeen gaineko hiruhileko txostenek erakusten dute Udalak 2019an egindako ordainketen % 19,4k gainditu egin zuela araudiak zehaztutako epea (30 egun onartu zenetik).



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua.

FINANTZAREN ANALISIA

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2017(*)	2018(*)	2019	2017	2018	2019
Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta best. sarr. (1, 2 eta 3 kap.)	630	670	732	399	415	454
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	1.283	1.191	1.341	813	738	831
Ondare sarrerak (5. kap.)	-	-	-	-	-	-
A. Diru-sarrera arruntak	1.913	1.861	2.073	1.212	1.153	1.285
Langileria gastuak (1. kap.)	706	677	671	447	420	416
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.)	554	572	653	351	354	405
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	261	257	266	166	159	165
B. Funtzionamendu-gastuak	1.521	1.506	1.590	964	933	986
Aurrezki gordina (A-B)	392	355	483	248	220	299
- Finantza gastuak (3. kap.)	-	-	-	-	-	-
Emaitza arrunta	392	355	483	248	220	299
- Maileguen amortizazioa (9. kap.)	-	-	-	-	-	-
Aurrezki garbia	392	355	483	248	220	299
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.)	-	10	-	-	6	-
Jasotako kapital transferentzia eta diru-laguntzak (7. kap.)	-	-	-	-	-	-
- Inbertsio errealak (6. kap.)	(145)	(504)	(420)	(92)	(312)	(260)
- Kapital transf. eta dirulag. (7. kap.)	-	-	-	-	-	-
Kapitalezko eragiketen emaitza	(145)	(494)	(420)	(92)	(306)	(260)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.)	247	(139)	63	156	(86)	39
Diruzaintza Geldikina	531	1.392	1.427	319	863	867
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	503	1.392	1.399	319	863	867
ZORPETZEA 12.31n	-	-	-	-	-	-

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 8,3 egin dute gora 2017ko urtearen aldean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** % 16,2 egin dute gora; nabarmentzekoak dira EIOZek eta HILBIZek izandako hobekuntza. Gainera, 2018-2019 ikasturtean, musika-eskolako zerbitzua kobratzeari ekin zitzaion, izan ere aurretik zerbitzua ematen zuen erakundearen dirulaguntza bidez finantzatzen baitzen.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** % 4,5 egin dute gora 2017-2019 aldian, handitu egin delako osagai nagusi den Udal Finantzaketarako Foru Funtsa (% 13,6), nahiz Artxanberrin lokalak gaitzeko dirulaguntza 2017an eskuratzeak murriztu egin duen hirurtekoaren hazkuntza.



Funtzionamendu-gastuak: % 4,5 egin dute gora 2017 eta 2019 bitartean, honako xehakapenarekin:

- **Langile-gastuek** % 4,9 egin zuten behera 2019 eta 2017 bitartean, nahiz soldatek gora egin azken bi urteetan, 2018an administrari batek erretiroa hartu zuelako eta Gizarte Segurantzaren kuotak % 10,8 murriztu zirelako.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioak** % 17,8 egin zuen gora 2017koaren aldean eta azpimarratzekoa da Idiazabalgo Udalarari musika-eskolagatik ordaintzen hasi izana eta Gipuzkoako Ur Kontsurtzioari uren arazketagatik ordainketen igoera. Horren aldean, konponketa eta zaintza gastuek % 42,9 egin dute behera, 2017an uraren hornidura-sarean eta udal bideetan uneko jarduera garrantzitsuak egin izanaren ondorioz.
- **Transferentziek eta dirulaguntzek** bere horretan eutsi diote eta % 16,5 igo dira Sasieta Mankomunitateari, kapitulu honetako osagai nagusi denari, egindako ekarpenak; ordea, berdindu egiten da musika-irakaskuntzaren zerbitzua ematen zuen entitateari ematen zitzaizkion dirulaguntzak kentzearekin.

Aurrezki gordina: Erakundearen autofinantzaketa maila neurtzen duen aldaki honek 2017an sarrera arrunten % 20,5 egiten zuen eta pixka bat onera egin du 2019an; honenbestez, Udalak urte horretan sarrera arrunten % 23,3 izan zuen finantza zamari aurre egiteko eta inbertitzeko.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Udalak 2018an mailegu bat kontratatu zuen, 2020an baliatu duena, eta 2034 arte urteko 72.919 euroren finantza zama balioetsia eragingo duena.

Kapital-eragiketen emaitza: Aldi horretako inbertsioek (1,1 milioi euro) diru-sarrera arrunten % 18,3 egin dute, eta udal-eraikin berriak sortutako obrak izan dira jomuga: behin-behineko lokalak gaitzea, kultura-etxe zaharra eraistea eta instalazio berriko obrak egitea, aurreko inbertsioen gainean % 60,6 egin dutenak. 2019an eraikin berria eraikitzen hasi ziren, 1,5 milioi euroan esleitu zena eta ekitaldi horretan 245.620 euroren gastua eragin zuena. Inbertsioak nagusiki berezko baliabideekin finantzatu dira eta 2020an zorpetu egin behar izan da 2019an abiarazitako obra amaitzeko.

Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina: 2018an gora egin du kontraturiko maileguaren eraginaren ondorioz. Kontratua aintzat hartu gabe, geldikinak behera egin du 2018ko eta 2019ko inbertsioak finantzatzeko baliatu delako; fiskalizazioan azaleratu diren doiketak egin eta gero 147.383 euro gelditzen dira.

Ondorioa: aurrezki-mailak hobera egin du pixka bat aztertutako aldiko diru-sarrera arruntak funtzionamendu-gastuen gainetik hazi direlako. Udalak 2019an abiarazitako obrarekin hartutako konpromisoei aurre egin beharko die, 1,3 milioi euro, eta horretarako zorpetu eta autofinantzatu beharko du. Kontratatu den mailegua erabiltzeak (2020an



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

gertatu dena) zorpetze-maila 2019ko sarrera arrunten gainean % 48,2an jarriko luke, EAEko udalen batez bestekoa baino handiagoa dena (% 16,9, 2018an). 2020ko krisi ekonomikoak aldaketa esanguratsuak ekarriko ditu urte horretan eta ondorioz, udalak duen diru-sarrera nagusia, UFFF alegia, 144.366 euro murriztuko da, 2020ko azaroan egindako aurrelikidazioaren arabera eta ekitaldi horretan eragiketa arruntek sortutako aurrezki-mailan eragina izango du.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontu-hartzailtza atalak egindako txostenak egiaztatu du Likidazioari dagokionez, aurrekontuaren egonkortasunaren araua bete dela, eragiketa ez finantzarioetan superabita izan duelako eta gastu zenbagarriek behera egin dutelako 2018koen aldean. Zorpetzeari dagokionez, berriz, kontraturiko milioi 1 euroren maileguak 2019ko sarrera arrunten % 48,2 egin zuen, ezarritako muga baino txikiagoa (% 72).



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE	KOBR.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EEXK.
1. Zerga zuzenak	A.3	343	-	343	365	348	17	% 106
2. Zeharkako zergak	A.3	8	6	14	40	35	5	% 286
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	334	-	334	327	274	53	% 98
4. Transferentzia arruntak	A.4	1.212	115	1.327	1.341	1.213	128	% 101
8. Aktibo finantzarioak	-	-	1.392	1.392	-	-	-	E/E
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		1.897	1.513	3.410	2.073	1.870	203 (*)	% 103

(*) Egikaritzaren % kalkulatzeko, baliatutako geldikinak deduzitu dira, 1,4 milioi euroren zenbatekoan.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EEXK.
1. Langileen gastuak	A.5	663	8	671	671	671	-	% 100
2. Ondasun arrunten eta zerbitz. kontrat.	A.6	677	54	731	653	628	25	% 89
3. Gastu finantzarioak	-	2	-	2	-	-	-	E/E
4. Transferentzia arruntak	A.7	268	10	278	266	231	35	% 96
5. Kreditu globala	-	67	(67)	-	-	-	-	E/E
6. Inbertsio errealak	A.6	187	1.526	1.713	420	338	82	% 25
9. Pasibo finantzarioak	-	33	(18)	15	-	-	-	E/E
GASTUAK GUZTIRA		1.897	1.513	3.410	2.010	1.868	142	% 59
SARRERAK - GASTUAK					63			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIER.	ZUZENK./	KOBR./	AZKEN	
	ERANSK.	ZORRA	BALIOG.	ZORRA	
Kobratzeko dauden saldoak	(A.8)	1.492	(28)	340	1.124
Ordaintzeko dauden saldoak		223	-	223	-
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(28)		

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	2.073
Obligazio aitortuak	2.010
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	63
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(28)
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA	35
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak	22
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	57



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 19.12.31n.....	1.392
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza	35
Huts egindakoen hornidurarako dotazio-aldaketak	(28)
DIRUZAINZA GELDIKINA 19.12.31-N	1.399
Diruzaintzako funts likidoak	325
Sarrerren aurrekontuko zordunak..... (A.8.)	1.327
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	4
Gastu-aurrekontuaren hartzekodunak.....	(142)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(87)
DIRUZAINZA GELDIKINA 19.12.31n	1.427
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	(28)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-geldikina	-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA 19.12.31-N	1.399
ZORPETZEA 19.12.31n	-

KONPROMISO-KREDITUAK	Euroak milakotan			
	HASIERAKO AURREK.	ALDA- KETA	AZKEN AURREK.	HITZAR- TUA
Udaleko obra berria (2020)	67	-	67	-
GUZTIRA	67	-	67	-



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEAK 2019 ETA 2018KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan		
AKTIBOA	2019	2018	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSK.	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA	12.848	12.412	ONDARE GARBIA		13.258	12.815
Ibilgetu ukiezina.....	606	606	ONDAREA.....		1.149	1.149
Ibilgetu materiala.....	12.123	11.707	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		11.667	11.286
Ibilgetuko inbertsioak.....	(21)	(36)	EKITALDIKO EMAITZA.....		442	380
Lurraren Udal Ondarea.....	108	103				
Epe luz. finantza inbertsioak.....	32	32	PASIBO EZ-ARRUNTA		989	989
			Kreditu erakundeekiko zorrak.....	A.9	1.000	1.000
			Ordaintzeko bst. kontu batz.....		(11)	(11)
AKTIBO ARRUNTA	1.629	1.692	PASIBO ARRUNTA		230	300
Zordunak eta kobratz. beste knt. b.	1.304	1.471	Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz.		108	171
Adm. publiko zordunak eta inbertsioak...	-	32	Administrazio publikoak eta beste.....		122	129
Eskud. eta bst. akt. lik. balioak.....	325	189				
GUZTIRA	14.477	14.104	GUZTIRA		14.477	14.104

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2019 ETA 2018		Euroak milakotan	
		2019	2018
Zergak.....		405	355
Tasak.....		301	278
Jasotako dirulaguntzak.....		195	87
Jasotako transferentziak.....		1.133	1.101
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk.....		24	25
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA		2.058	1.846
Langileen gastuak.....		(672)	(678)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....		(266)	(257)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....		(652)	(570)
Ibilgetua amortizatzea.....		-	-
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA		(1.590)	(1.505)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		468	341
Arruntak ez diren beste partida batzuk.....		2	2
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK		470	343
Sarrera finantzarioak.....		-	9
Gastu finantzarioak.....		-	-
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....		(28)	28
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK		(28)	37
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA		442	380

ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Zaldibiako Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena.

Arautegi horrek udalek dituzten eskumenak edo ematen dituzten zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura-eta kirol-jarduerak etab.

Zerbitzu hauek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerbitzu jakin batzuen zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatik sarrerak, ondare sarrerak, diru-laguntzak eta kreditu eragiketak.

Ekitaldian ezargarrria den ekonomia eta kontularitzari buruzko araudi nagusia honako hau izan da:

- 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoa.
- 86/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako toki erakundearen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.

A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2018ko abenduaren 20ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019ko urtarrilaren 14an eman zen argitara.

Hona hemen, 2019ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Kreditu txertaketa	Kreditu gehigarria	Kreditu gaikuntza	Transferentziak		GUZTIRA
				+	-	
2. Zeharkako zergak	-	6	-	-	-	6
4. Transferentzia arruntak	-	-	115	-	-	115
8. Aktibo finantzarioen bariozioa: Geldikina	1.232	160	-	-	-	1.392
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	1.232	166	115	-	-	1.513
1. Langileen gastuak	-	-	-	8	-	8
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen kontr.	14	22	8	10	-	54
4. Transferentzia arruntak	-	-	-	10	-	10
5. Kreditu globala.....	-	-	-	-	(67)	(67)
6. Inbertsio errealak.....	1.218	144	107	57	-	1.526
9. Pasibo finantzarioak	-	-	-	-	(18)	(18)
GASTUAK GUZTIRA	1.232	166	115	85	(85)	1.513

Onartutako 9 aldaketa-espeditentek gastuen hasierako aurrekontua % 80 gehitu dute.

2019ko ekitaldiko Aurrekontuen likidazioa 2020ko martxoaren 4an onartu zen Alkatetzaren Dekretu bitartez. Kontu Orokorra 2020ko uztailaren 16an onartu zuen Udalbatzak.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak zehaztuta:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Sarrera
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	191
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga	127
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	17
Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera	30
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	365
Eraikuntzen, instalakuntzen eta obren gaineko zerga.....	40
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	40
Ur hornidura.....	102
Estolderia zerbitzua	59
Zabor-bilketa	89
Musika Eskola.....	28
Etixerako laguntza zerbitzua.....	4
Jabari publikoaren erabilera pribatua-terrazak, aldarnioak.....	2
Bide publikoa okupatzea telefono eta elektrizitate eta gas hornitzaile diren enpresek	15
Telekomunikazio enpresen konpentsazioak	6
Udaleku, ikastaro eta kultur jardueren prezioak, jaietarako laguntzak eta bst. txiki b.....	22
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	327
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	732

Gipuzkoako Foru Aldundiak OHZ eta JEZ kudeatu eta biltzen ditu, Udalak eskuordetuta, konturako ekarpenak eginez eta urteko likidazioak benetako kobrantzekin gauzatuz, ekitaldian bertan egin direnak OHZren kasuan eta 2020an JEZren kasuan. Udalak 2019ko sarrera gisa onartu zituen konturako sarrerak eta 2 likidazioak. Gainera, zerga biengatik kobratzeke dauden ordainagirik 1,2 milioi euro egin zuten, aplikatutako kontabilitate-irizpideagatik Udalaren saldo zordunen artean sartzen ez direnak, eta horietatik enpresa batenak 1,1 milioi euro ziren.

2019ko azken hiruhilekoko uraren eta estolderiaren tasak, 40.825 euro guztira, 2020ko otsailean likidatu eta jakinarazi ziren, eta Udalak zenbateko hori 2019ko diru-sarrera modura aitortu du.

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 2019an transferentzia eta dirulaguntza arruntek eragindako sarrerak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Sarrera	
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA		
UFFF-Itunpeko zergetan partaidetza 2019 - konturako ordainketak.....	1.097	
UFFF-Itunpeko zergetan partaidetza 2019-likidazioa.....	25	
Udal eraikin berriko lanak-adinekoak artatzeko lokala	72	
Olakosai eta Urtsugoiena auzoetako bideak	63	
Etzerako laguntza zerbitzua	11	
Partaidetza-prozesuak, genero-berdintasuneko teknikaria, gizarte zerb. mapa, etab.....	39	
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA		
Osakidetza – osasun zentroaren mantentze-lanak	10	
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak 2019	8	
Bake epaitegia, liburuak, liburutegia euskararen sustapena	5	
BESTELAKOAK		
Beasaingo Udala, Lanbideren laguntzak eskualdeko enplegu planerako	8	
Estatua: itundu gabeko zergetan partaidetza eta genero berdintasunari laguntzak.....	3	
GUZTIRA	1.341	

Udalak zerga itunduetan parte hartzeagatiko diru-sarrerak (Udal Finantzaketarako Foru Funtza) 2019ko konturako entreegi dagozkie eta urte horretako 24.616 euroren likidazio positiboari, 2020an onartu zenari.

Udal-eraikin berriko adinekoei arreta emateko lokalerako aldundiaren dirulaguntzak partzialki finantzatu zuen instalazio horren kostua. Azpiegitura berriaren gauzatze-maila 2019ko abenduaren 31n kontuan hartuta, dirulaguntza horrek sortutako finantzaketa-desbideratzea 59.605 eurorena zen.

A.5 LANGILEEN GASTUAK

Gastu-kapitulu honen xehakapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	Gastua	LANPOSTU KOP.	
	2019	LZ	19.12.31
Udalkideak (alkatea)	25	-	1
Funtzionarioak.....	233	10(a)	7(b)
Langile lan kontratudun finkoak	255	5	5
Aldi baterako lan kontr. (horien kostua lang. finko modura erregistr. da)	-	-	5(c)
Ordainsarien guztizko partziala	513	15	18
Gizarte Segurantzari kotizazioak	147		
Pentsio osagarrietarako ekarpenak-Elkarkidetza	11		
GUZTIRA	671		

(a) % 33 eta % 90,2 bitarteko dedikazioa duten lau postu.

(b) Bitarteko 5 funtzionario lanpostu hutsengatik.

(c) 2019ko eta 3 urte lehenagoko bi obra-kontratu (Lanbide eta ordezkapena).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2019ko ordainsarien igoera 2019ko urtarrilean aplikatu zen, 59,8 euroko igoera linealarekin langile guztiari, eta horrek 2018ko ordainsariak % 2,33 igotzea ekarri zuen. Gainera, 2019an, lanpostuen balorazioa aldatu zen, eta, horren ondorioz, ordainsari guztiak % 6,9 igo ziren.

Udalak Gizarte Segurantzaren ezintasun iragankor kontzeptuko prestazioak osatzen ditu eta 2019an guztira 5.278 euro ordaindu dizkie 4 langileri.

Udalak 2008an onartu zuen Udalhitz 2008-2010 akordioa aplikatzea, 2019an indarrean egon zena. Gainera, 2018an Udalak Giza Baliabideen Plan Estrategiko bat onartu zuen, erretiroa 2 urte aurreratuz gero langileen erretiro aurreratua 9 hilabetera arteko primekin sustatuz; 2019an ez da ordainketarik egin.

Altak

2019ko ekitaldian Udalak honako langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kopurua
Bitarteko funtzionarioak (3 langile)	3
Izendapena lanpostua behin betiko bete arte.....	3
Aldi baterako lan kontratupekoak (2 langile)	3
Obra-kontrata (Lanbide programa, langabetuen kontratazioa).....	1
Ordezkapen-kontratuak.....	2
GUZTIRA	6

A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

2. kapituluaren erregistratzen dira ondasun arruntaren eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak; ondotik xehakatu ditugu kontzeptu esanguratsuenak:

KONZEPZUA	Euroak milakotan	
	Gastua	
Fotokopiagailuaren alokairua eta errepikagailurako lursaila	1	
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza.....	84	
Bulegoko materiala	488	
Idiazabalgo Udalararen transferentzia - musika-eskola	72	
Argindarra hornitzea	38	
Gas-hornidura	11	
Santa Fe jaiak, Saturdikoak eta beste: taldeen kontratazioak, soinu-ekipoak eta beste	47	
Arkitektoaren aholkularitza eta obraren jarraipena.....	42	
GFA-euskarri informatikoa	22	
Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idaztea	22	
Aseguru-polizak	19	
Lanpostuen balorazioa.....	14	
Telefono bidezko komunikazioak.....	14	
Partaidetza-prozesura joatea, epaiketa-prozesuko kostuak, konponketak eta bst. txiki batzuk	187	
Hainbat gastu-Ur Kontsortzioa: azpiegitura-kanona eta ura arazteko tasa 2018	79	
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketa.....	1	
GUZTIRA	653	

Udalak 2018an Idiazabalgo Udalarekin adostu zuen musika-irakaskuntzako zerbitzuak 2 urteko aldirako kontratatzea. Azken honek bi udalarentzako zerbitzuaren kontratazioa izapidetu zuen eta Udalak hiruhileko ordainketak egiten ditu Zaldibian emandako irakastordu kopurua aintzat hartuta.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak urtero urtarrilean kitatzen du Zaldibiatik datozen uren arazketa-tasa. 2019ko tasa, 52.027 euro, 2020ko gastu modura likidatu eta kontabilizatu zen.

Hona hemen 2019ko inbertsioen xehakapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	D-O (*)
Azpiegiturak: Urtsugoiarena, Gurutzeta eta Olakosaiko bideak hobetzea	112	-
Azpiegiturak: hilerrirako sarbidea	45	-
Eraikinak-udaletxe berria: 1etik 3rako obra-ziurtagiriak	246	1.253
Eraikinak-udaletxe berria: obraren zuzendaritza	-	39
Bestelako txikiago batzuk: hobek. eskolan, hiri-altzarrietan eta Artxanberriko lokaletan	17	-
GUZTIRA	420	1.292

(*) 2019ko abenduaren 31n konpromisoa: 2020an egikaritzeko obra.

Kontratazioaren legezkotasunaren analisia

Udaletxe berria eraikitze obraren kontratazio-espeditua berrikusi dugu, 2019ko ekainean prozedura ireki bitartez 1,5 milioi euroan, BEZa barne, esleitu zena. Irailean hasi zen egiten, 14 hilabeteko epea aurreikusi zela.

Beste erosketa batzuk aztertu ondoren, kontratu txiki modura izapidetu ziren erosketak atzeman ditugu, prozedura ireki sinplifikatu laburtu bidez egin beharrean.

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Gastua
Landabideetan obra (Urtugoiena eta Olakosai-gordailua) irailan esleitua (*).....	80
Hirigintzako aholkularitza eta unean uneko enkargu teknikoak.....	42
Eraikin, ibilgailu eta bizitzako aseguru-polizak.....	18
GUZTIRA	140

(*) Bi kontratu txikien esleipena ez zen alkatearen Ebazpenen Liburuan transkribatu.

A.7 EMANDAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK

Hona hemen gastuen 4. kapituluaren xehakapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Gastua
SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK	154
Sasietako Mankomunitatea - 2019ko behin-behineko ekarpena	136
Sasietako Mankomunitatea - 2019ko aparteko ekarpena eta 2018ko likidazioa	9
Enirio-Aralarko Mankomunitatea eta Udal Euskaldunen Mankomunitatea.....	9
DIRULAGUNTZA ZUZENAK	14
Udalbiltza, Hegoa Iparra eta Gure Esku Dago	6
Gizarte ong.: Saharako umeei harrera, garapenari lag. eta generoa, ezinduak dituzten 4 familientzako lag.	4
13 elkarte: Beasain eta Ordiziako mendizaleak, Ikastolen elk., Herri Eskolen elk., Bertsolari Elkarte, etab	3
Kale-argiak baserrietan	1
DIRULAGUNTZA IZENDUNAK	66
Goierriko Ekimena, SA: 2019ko aurrekontuko ekarpena	17
Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa.....	12
Goimen-Landa Garapeneko Goierriko Elkarte	7
Ausa Gazterluko eskolako gurasoen elkarte	7
2 udal talde politikoen diru-ekarpena.....	7
Goierriko Hedabideak SL (eskualdeko egunkaria) eta Goierriko Ikuskari SL (eskualdeko telebista)	8
Beti gazte jubilatuen lokala	3
Beste batzuk: Euskal Funtsa, Odol Emaileak, Tolosaldeko hiltzea, Hobeteki elkarte	5
LEIHA BIDEZ ESLEITUTAKO DIRULAGUNTZAK	32
Kultur eta kirol jarduerak: urteko programak (10 erakunde)	17
Gizarte-larrialdietarako laguntz. (12 onuradun (oinarizko beharrak, zorrak, energia, alokairua eta konponk.)...)	8
Gizarte-laguntza - Uraren eta zaborraren udal-tasak (11 onuradun)	3
Euskara-ikasleak (7 onuradun).....	4
GUZTIRA	266



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Mankomunitateari 2019an egindako ekarpena kalkulatzeko, aurrekontuaren zenbatespenak egin ziren, eta kostuak eta diru-sarrerak banatu ziren biztanleriaren arabera (% 2,3, 2019an), sortutako hiri-hondakin solidoko kilogramoen arabera eta kostu-osagai nagusirako berariazko kalkuluen arabera:

Deskribapena	Euroak milakotan	
	Irizpideak	Zenbat.
Hondakinen bilketa: 2015ean esleitutako kontratua.....	kostuaren kalkulua	106
Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren tasa errefusa eta organikoa tratatzeagatik	kilogramoak	30
3 garbiguneren eskualdeko zerbitzua: sarreraren kostu garbia.....	biztanleria	6
Diru-bilketako bst. kostu b.: ikuskaritza, sentsibilizazioa, poltsak, edukiontziak, etab.	biztanleria	16
Gastu orokorrak	biztanleria	8
Ecoembes-i dirulag. (ontziak eta papera) eta paper-salmentagatik sarrerak.....	biztanleria	(30)
GUZTIRA		136

2020ko urtarrilean ekarpenak berriz kalkulatu ziren, diru-sarreraren eta gastuaren osagai nagusien egikaritzako datu errealekin, eta, horren ondorioz, 2.507 euroren ekarpen osagarria egin zen, 2020an gastu gisa erregistratua. Mankomunitateko auditatu gabeko kontuek 2019an 274.229 euroren aurrekontuko emaitza positiboa eta 2019ko abenduaren 31n 1,2 milioi euroren Diruzaintza erabilgarriaren berri ematen dute.

Goierriko Ekimena SA Udalak (% 4) eta eskualdeko beste 17 udalek partaidetutako sozietatea da, ekonomia, enplegua eta turismoa sustatzeko udal-eskumenak garatzeko. 2019ko aurrekontua onartzean udalen ekarpenak zehaztu ziren, biztanleen arabera kalkulatuta (% 3,6 Udalak jarri beharrekoa). Sozietatearen auditaturiko kontuen arabera, 2019an sarrerak (% 37 bazkideen ekarpenak) eta gastuak orekatu ziren, eta azken hauetan 102.711 euroren amortizazioak barne hartu ziren.



A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Hona hemen 2019ko abenduaren 31n aurrekontuko zordunen xehakapena:

KAPITULUAK	Aurrekontu itxiak				Euroak milakotan	
	19/1/1	Baliog.	Kobr.	19/12/31	2019 aurrek. 19/12/31	GUZTIRA
Ondasun higiezin gainerako zerga.....	3	-	3	-	-	-
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gainerako zerga	61	-	-	61	6	67
Zerga Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gain. zerga	6	-	2	4	7	11
Jarduera ekonomikoen gainerako zerga	4	-	4	-	4	4
Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gainerako Zerga	5	-	-	5	5	10
Zabor-bilketa	14	-	1	13	3	16
Estolderia	29	-	20	9	23	32
Ur hornidura	40	-	21	19	22	41
Premiamenduko gainerakak.....	9	-	9	-	-	-
Beste txiki batzuk.....	27	-	18	9	5	14
1etik 3rako kapituluaren guztizko partziala	198	-	78	120	75	195
4. kapitulua Transferentzia eta dirulaguntza arruntak.....	269	13	252	4	128	132
6. kapitulua Inbertsioen besterentzea	25	15	10	-	-	-
9. kapitulua 2018ko mailegua.....	1.000	-	-	1.000	-	1.000
GUZTIRA	1.492	28	340	1.124	203	1.327

Udalak 27.946 euroan balioetsi zuen 2019ko abenduaren 31n nekez kobragarri diren saldoentzako hornidura eta halakotzat jo ditu bi urtetik gorako antzintasuna duten saldoen % 24. Alabaina, aurrekontuko araudiak agintzen du saldo hauek guztiak hartu behar direla aintzat eta irizpide horren arabera, zuzkidura 86.448 euroan gehituko litzateke.

Gainera, likidazioak eta ordainagiriak kontrolatzeko sistema osagarriak kontabilitatekoak baino saldo txikiagoak erakusten ditu, 13.005 euroren zenbatekoan. Geldikin erabilgarrian bi egitateen eragina 99.453 eurorena izango litzateke.

2018an, Udalak mailegu bat kontratatu zuen, milioi bat euro arteko mugarekin, 2020ko irailean osotasunean erabilia zuena; ordea, aurrekontu-araudiak agintzen du maileguengatik diru-sarreraren erregistroa benetan erabiltzen diren heinean egin behar dela. Maileguak 3 hilabeterako Euriborra gehi % 0,61eko interesak sortzen ditu, eta 2020ko irailetik aurrera, hiruhileko 56 mugaegun berdinetan amortizatu beharko du erabilitako zenbatekoa. Mailegu-polizak adierazten du mailegu osoa erabilia eta % 0,291ko interes-tasa kontuan hartuta, hiruhileko kuota konstantea 18.230 eurorena izango litzatekeela.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ZALBIDIAKO UDALAREN ALEGAZIOAK

Herri Kontuen Euskal epaitegiak Zaldibiako udalaren 2019ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa mamitu ondoren bere iritzia aurkeztu digu 15 eguneko epean beharrezko irizten badugu arrazoibideak aurkezteko aukera emanez.

Iritziak laburbilduz honako hauek esaten ditu.

- Lege betetzeari buruz: 2019ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia zuzentasunez bete duela langileen ordainsari igoerari dagokionean izan ezik.
- Kontu orokorrak 2019ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena egiten du, nahiz eta ez izan ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehapenik, ez amortizaziorako zuzkidurarik egiten eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian eztabaidan dagoen kalte ordainari buruz ez du ezer islatzen.
- Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko iritzia: printzipioak betetzen dira nahiz eta betetze nabarmen eragiten ez duten akatsak izan. Era berean, prozedurak hobetzeko iradokizunak egiten dira.
 - Aurrekontua, Kontabilitatea eta diru sarrerak.
 - Idazkari kontu-hartzailearen txostenaren falta eta langilearen eranskina ez zetorren bat gastu kapituluarekin.
 - 2017ko kredituak txertatu ziren.
 - 2. Kapituluaren aurrekontuko egiturak ez da egokia.
 - Gastuaren esleipena fasea ez da kontularitzan.
 - Memorian ez da ezer esaten konpromiso kredituari buruz.
 - Zerga zordun Nagusiak jabe berria du, jabe berriari eskatu behar zaizkio OHZren likidazioak ordaintzea.
 - GFaren agentzia exekutibora bidaltzen atzerapena.
 - Langileria.
 - Ordainsariaren igoera ez zen GAOn argitaratu.
 - Idazkari kontu-hartzailearen lanpostu partekatuta du eta Zaldibiako udalak %100 era du.
 - Aldi-baterako lan kontratuen egoera zuzendu beharra.
 - Giza baliabideetako plan estrategikoa onartuta du baina ez du ez txostenik ez lortu beharreko helbururik.
 - Kontratazioa.
 - Udaletxe berria eraikitzearen esleipen prozesuan egindako akatsak zehazten dira.
 - Erosketa txikiak: Hainbat erosketa egin ziren txiki bezala eta prozedura irekia jarraitu behar zen. Kontratazio profilean argitaratu behar dira.



- Transferentziak eta dirulaguntzak.
 - Dirulaguntza zuzenak hitzarmenik gabe.
 - Dirulaguntzaren araudian banaketarako irizpideak ez dira sartzen.
- Beste alderdi batzuk.
 - Web gunean jasotzen diren datuak baina gehiago argitara eman beharko litzateke.
 - Hiruhileko txostenean ikusten da ordainketen % 19,4 gainditu egin zuela.
- Finantzaren analisia: Aurrekontuaren egonkortasuna betetzen da. Azpimarratu behar da udala 2019an udaletxe berria eraikitzeko proiektua dela eta kreditu operazioa onartu zen.

Iritzia hau jaso ondoren emandako epean honako ALEGAZIOAK aurkeztu nahi dituela:

Bai Lege betetzeari buruz eta bai Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko iritzian pertsonalaren ordainsariari egiten dio aipamena. Nahiz eta egia izan udalaren langileriak 2019an igoera izan zuela azken 16 urtetan lanpostuen antolaketa eta balorazioa egiteko zeukan. 2003an Zaldibiako udalak udal lanpostuen antolaketa egin zuen eta kontuan izanik 16 urte pasa ondoren jubilazioak, eta nola ez herriak eta arautegiak aldaketak izan zituela langileak eskatu zuten antolaketa berria eta sortzen ziren moldatutako lanpostuen balorazioa. Lanketa honek urtebete baino gehiago iraun ondoren 2019ako uztailan udalbatzak onartu zuen bai antolaketa berria, lanpostuen ezaugarri berriak eta bai beraien balorazioa.

Antolaketa berri honen arabera Zaldibiako udalak denboraldi baterako kontratuak eta urte askotan lanean ari ziren hauen egoera zuzentzeko bidean jarri gara, beharren arabera azterketa sakona egin delako.

Jarraitzeko, kontuan izanik Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko azterketan hainbat akats eta hobetu beharrak somatu direla, esan behar dugu akatsak zuzentzeko bidean jarri garela, hauek hain zuzen:

- Aurrekontua, Kontabilitatea eta diru sarrerei dagokionez somatutako kasuan 2. kapituluaren aurrekontu egitura hobeto egin da eta GFaren agentzia exekutibora bidaltzeko atzerapenak eguneratu dira eta hemendik aurrera Gastuaren esleipena fasea kontabilizatuko da. Bukatzeko, esan behar dugu Zaldibiako Udala ahalegin guztiak egiten ari dela Zerga zordun nagusiak, Bilore, OHZaren likidazioa ordaindu ditzan, baina ez dago Zaldibiako udaleko eskuan bakarrik ze OHZaren kudeaketa Foru Aldundiaren esku dago. Dena den dokumentazio osoa Bilore likidatu dutenen esku artean daude.
- Kontratazioa: Zaldibiako udalak 2019an kontratazio espediente bakarra ireki zuen, Udaletxe berria eraikitzearena eta kasu horretan udalak exekuzio proiektua bere horretan esleitu zuen, eraikuntza bakarra delako eta lotetan zatitzeko lote bakoitzak ez zuelako nahiko funtsik bakarka esleitzeko. Era berean, 2020tik aurrera kontratu txikien erlazioa argitaratzen da kontratazio profileen.
- Dirulaguntzei dagokionez somatutako akatsak zuzentzen ari gara, hain zuzen behar diren hitzarmenak sinatuko dira eta oinarriak osatuko dira 2021 urterako.



ABREVIATURAS

BOG	Boletín Oficial de Gipuzkoa.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
FFFFM	Fondo Foral de Financiación Municipal.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones Instalaciones y Obras.
IIVTNU	Impuesto sobre Incremento Valor Terrenos de Naturaleza Urbana.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LRBRL	Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local.
NNSS	Normas Subsidiarias.
RDL 24/2018	Medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
TSJPV	Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado la Cuenta General del Ayuntamiento de Zaldibia para el ejercicio 2019.

La anterior fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Zaldibia realizada por el TVCP fue la referida al ejercicio 2006.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

